

AINGERU IRIGARAY IRIGARAY
(1899-1983)


Egilea:

ENRIKE DIEZ DE ULZURRUN SAGALÁ

XIX. mendea akitzera zihoanean, lehendabiziko aldiz argia ikusi zuen xx. mendean barrena euskalgintzan zer erran handia emanen zuen gizonak. Zut eta gora eraman zuen etxe-txoko minetik heldu zitzaion lekuko hura eta eutsi zion urteen joan-etorrian, hala atseginean nola atsekabean. Sendakina, kulturaz jantzitako gizona, mundu-ikuskeraren irekia zuena, idazluma zorrotza, huntaz eta hartaz izkiriatu zuen hamaika aldizkaritan eta liburu frankotan, hizkuntzaren eta herriaren aldeko maitasunak gidaturik, betiere. Langile nekagaitza, ikerlaria, aldi eta alde oro zuen isuri bere hats bizia, zabala, molde guztietako muturretatik ihesi, zortzi hamarkada luzetan. Horren testigu dira, konparazio batera, hala Iruñeko Euskeraren Adiskideak Elkartea nola Euskaltzaindia, hala Nafarroako Diputazioaren Euskeraren aldeko Saila nola Eusko Ikaskuntza. Gerra aitzineko eta gibleko

euskaltzaleen artean lokarri, euskal munduan eragile eta giltzarri, zenbait arlotan aitzindari, hark paper zurietan moldatutakoak, oraindik ere, ikasbide eta jakinbide zaizkigu gertatzen. Beude, hortaz, lerro xumeok Aingeru Irigaray Irigaray jaunaren oroigarri.

1



Aingeru Irigaray Irigaray. 1899-1983



Martinzurginenea. Aitaren aldeko sortetxea Auritzen. Euskaltzaindiak Larrekoren omenez plaka bat paratu zuen 1972an

ETXEKOAK

Aingeru Irigaray Irigaray 1899ko martxoaren lehenean sortu zen, Berako Alzate auzoan. Aita ere sendakina zuen eta urte hartan Beran zebilen mediku. Gurasoak ez ziren Bidasoa aldekoak ordea, auriztarrak baizik. Aita, Fermin Irigaray Goizueta, Auritzeko Martinzurginenea etxekoa zen eta, ama, berriz, Felisa Irigaray Apat, herri bereko Porkaxonekoa. Aingeruk aitarengandik hartu zuen euskararen gaineko maitasuna, aita sendakin ospetsua izateaz landara, izen handiko euskaltzalea eta idazlea ere izan baitzen, «Larreko» izengoitia baliatzen zuena.



Fermin Irigaray, *Larreko* eta Aingeru semea, Iruritako Palotegian, 1905 urtearen inguruan. Gerra aitzineko zenbait idazkitan Aingeruk «Irular» izengoitia erabili zuen. Irular Irurita ondoko bizkar baten izena zen. Iruritan sortu ziren Aingeruren lau anaiak: Miguel, Luis María, Jeronimo eta Jesus, lehenbizikoa hilabete gutxira hila

Fermin Irigaray laster izendatu zuten Iruritan mediku eta senar-emazteak Baztango herri horretako Palotegia etxera joan ziren bizitzera Aingeru haur ttipi-ttipia zelarik, eta hantxe sortu ziren bere lau anaiak. Bortz haurrideen artean, zaharrena zen gure gizona. Lehendabiziko eskolak ere Iruritan hartuko ditu eta 1909tik goiti Lekarozko ikastetxean ikasiko du 1915era bitartean.

EUSKAL KONTZIENTZIAREN HASTAPENAK

Euskal kontzientzia Baztanen hasi eta mamituko zaio. Aitak etxean sortutako giroari Lekarozko Ikastetxean zegoen taldexka baten eragina erantsi behar zaio, han baitzebiltzan, bertzeak bertze, Aita Celestino Caparrosokoa, *Arrigarai* eta Aita Eusebio Etxalarkoa. Lekarozko ikasketak bukaturik, medikuntza

3



Irigaraytarrak Auritz inguruko Aitzubi deitutako tokian. 1915-18an ateratako argazkia da. Erdian zutik, eskua kopetaraino goratua duena Larreko da, hots, sendakin ospetsua eta euskal idazle handia. Eskuinetik hasita, zutik, planta ederrean, Aingeru. Bere ama, Felisa, hirugarren emaztekoa da ezkerretik hasita



Jakin nahiak bulkaturik, Aingeruk espezialitateak atzerrian egin zituen. 1924ko irudi hau Parisen hartua da. Gure sendakina zutik ageri da, hirugarrena ezkerretik hasirik

ikasteari lotzen zaio Zaragozan. Hiri honetan pare bat urte eman ondoren, bertze lau ikasturte Bartzelonan eginen ditu eta Kataluniako hiriburuan euskal giro jatorra topatuko du ikasleen artean —Carlos Amat Iruñeko euskaltzale lonbratua eta Justo Garate, bertze batzuen artean—. Garai hartan hasiko da euskal literatura dastatzen eta ildo horretatik zimiko berezia egiten diote betiko lapurtar klasikoek. Aingeruk bere eginen ditu lapurtarren joerak eta manierak, era berean, saiatuko da ildo horiek ikaskideen artean zabaltzen; Haraneder eta Axularren idatziak, batez ere.



Ikasketak bukaturik, doktore mailakoak Basurtoko Ospitalean egin zituen eta han parada izan zuen, ikaskideen artean, jende euskaltzalearekin harremanak izateko, Justo Garaterekin, esate baterako. Argazkian Teodoro Hermadoreharenekin azaltzen da

Euskalgintzan barneratzeaz batera, sendakintzan ere trebatuko da. Izan ere, doktore mailako ikasketak Basurton eginen ditu eta, Bizkaian ere, lagun-giro aparta eginen du —bertzeak bertze, Teodoro Hernadorena zizurkildarra, Ipar Euskal Herrian bertsolaritza berpiztu zuen gizona—. Ondoren, jakin-nahiak bultzaturik, Parisera abiatuko da espezialitate batzuk egitera, eta ondotik, Alemaniako Freiburg hirira; bertan jakintza handitzen du ginekologian, urologian eta roöntgenologian. Bidaia horiek parada eskaintzen diote hizkuntzetan ere trebatzeko: ingelesaz eta frantsesaz landara, alemaneraz ere bazekien poliki.

Iruñera itzulirik, berehala hasiko da lanean Udalaren menpe zegoen Casa de Socorro delakoan —oposaketan lehendabiziko postua atera ondoren—. 1924. urtea zen hura. Ondotik, 1927an, Etxez etxeko Udal Asistentziara pasako da eta kontsultategi pribatua ere zabalduko du. Aita-semea, bi-biak aritu ziren lanean Iruñeko Orreaga etorbideko kontsultategi hartan. Izan ere, 1915etik aitzinera, aitak Nafarroako Ospitalean ziharduen lanean, Iruñeko Santo Domingo karrikan zegoena, eta familia osoa hiriburura joana zen bizitzera.



Aingeru, anaiak eta gurasoak, Iruñean, 1916an. Larrekok aitzineko urtean plaza irabazia zuen Nafarroako Ospitalean eta aitzindaria izan zen zinez ebakuntzen alorrean. Hasieran, Iruñeko alde zaharrean bizi izan ziren eta gero zabalgunee berrian.



Irlandara egindako bidaia herrialde horrek askatasuna erdietsi berri zuenean. Hango hizkuntzaren beherakada ikusirik, hemengo abertzaletasunari eskatu zion euskararen aldeko zinezko jokamoldea eta ez apaingarri hutsean oinarritua. Aingeru zutik ageri da. Behetik hasita hirugarren ilaran bigarrena da.

1927 hartan, Aingeruk atzera Parisa joko du espezializazioko ikasketak bururaino eramateko asmoz eta etxera bueltaturik, medikuntza-lana zabalduko du bertze zeregin zehatz batzuen bitartez. Beraz, artean hogeita hamar urte bete gabea zelarik, gizon jantzia eta jarria zen sendakintzan. Eta mediku-lan hori bertze esparru batera ere eraman zuen, hots, sindikalgintzara; Eusko Langileen Alkartasunera, zehazki, bolondres gisa

aritzen baita eta 1932an ELAko kide egin zen. Artetik errateko alderdi abertzalearen ekintzetan eta ekitaldietan ere hasiko da parte hartzen, eta, are gehiago, Irlandara ere bisitan joan zen, hainbat abertzalerekin batera. Dena dela, han ikusitako gauza batek sakonki mindu zuen, gaelikoa gibelerat baitzihoan eta hauxe idatzi zuen, 1934an, *Argia*-ren egutegian, hemen ere gertatzen ari zenaz ohartarazteko:

Euskal Herrian gauzak ondo joateko, ardura handiago beharko zaio eman gure mintzaira zaharrari. Abertzaletasunak, politika den aldetik, asko aurreratu du; ez dezakegu berdin erran euskara gure ele hunetaz. Euskaldunen eginbearra, orai, da irautea, euskaldun egotea beti. Argi aski dakusgu, euskotar euskaldun batengandik eusko erdaldun batenganaino doaie bide luzea; horrengatik, abertzale euskaldunak zati berezi batean behar gindezke... Askatasunarekin, euskara berriz laster hedatuko dala diotenei, on izanen zaie, beheko lur hunetan agertzen dana erakustea. Irlandan garrantzi gehiago eman zaio beti politikari mintzairari baino; orai (nere begiekin ikusia) ezin gaizkiago daude. Azken ehun urte horietan Irlandak irabazi du askatasuna, baino... gauza gogoetagarria! denbora berean galdu du bere mintzaira zaharra... Salneurri goraxkoa deritzait, Irlandako askatasunaren neurria... Oraindanik ez badugu hobesten euskara, etxean eta karrikan, neke eta zail izanen zaigu gero ere askatasunarekin... Euskaldun herrietan, hitzaldiak euskaraz behar dira, antzerkiak euskaraz ere; euskaldunetan, euskaraz bakarrik. Hala balitz, ez zen gertatuko hori dena; abertzaletasunaren aitzakiarekin sartzan dela euskaldun herrietan hiri handietikako gazterien eta mintzalarien erdara...

(«Abertzale bai, baina euskaldun» artikuluko pasarte)

Horra beraz, gerra aitzineko giro hartan Irigarayk sumatzen zuen errealitate mingotsa, Larreko bera ere tristatu zuen errealitatea. Honela adierazi zuen bertze behin ere Aingeruk —Iruñeko *La Voz de Navarra* egunkarian, gazteleraz idatzitako artikulua batean— bere arrangura handia eta abertzaletasunak, oro har, euskararekiko erakutsi zuen sentiberatasun motelaren gaineko kexa bizia:

Aunitzetan abertzalekideak ikusi ditugu Bilbotik hurbil dauden herrietan edota Zubirin, Lekunberrin edo Elizondon barrena, eta, ez dira deustarako ere harritzen haurrak erdaraz mintzatzen aditzerakoan: hizkuntza borroka gogorrean ari da herri horietan eta «abertzale» horiek enteratu ere ez dira egiten.

(Gaztelerazko testuaren zatia, Xabier Erize, 1997)



IRUÑEKO EUSKERAREN ADISKIDEAK

Aingeru Irigaray ikasketak bukatu eta lanean hastearekin batera, indarrean ekin zion euskararen aldeko lanari eta gogotik idazteari. xx. mendearen hirugarren hamarkada hartan bertze belaunaldi bat hasi zen zeregin horretan eta, bertan, Aingeru kokatu beharra dago. Berarekin batera bertze izen batzuk ere bai: Blas Fagoaga, Miguel Inchaurrondo, Paz Ziganda eta bertze. 1925etik aitzinera, aurreko belaunaldiko euskaltzaleekin elkarrekin aritu ziren. Hortaz, Aingeruk bat egin zuen aitzinetik lanari erabat lerratuta zeuden Larreko, Manezaundi, Jose Agerre, Damaso Intza eta bertzeekin. Denak elkartu ziren Iruñeko Euskeraren Adiskideak deitu elkarte gogoangarri hartan. Elkarte eraginkorra izan zen hura, harat-honat euskal jaiak antolatu zituena. Garai hartako Nafarroako mugimendu euskaltzalea arras ongi aztertua duen Iruñeko Xabier Erize Etxegarai euskal filologoak halaxe dio bere doktorego-tesian:


Nabarmentzekoak dira Nafarroako hainbat herritan antolatu zituzten euskal jaiak, euskal hizkuntza komunitatearenagana bideratutako saioen ezaugarri ia guztiak beraietan biltzen baitziren: kontzientzia piztea, euskara hautatu eta erabiltzeko bultzada, euskararen transmisioa, herri euskararen eta literatur euskararen uztardura... Garrantzi handia eman zioten euskararen berezko transmisioa —familia bidezkoa, herri girokoa...— bideratzeari eta horren erakusle bikaina Euskeraren Adiskideak elkartearen herri euskaldunetako haur euskaldunentzako jai eta sariak ditugu.

*(Nafarroako Euskararen Historia
Soziolinguistikoa 1863-1936)*



Euskeraren Adiskideak, gerra aurreko elkarte euskaltzale eraginkorra izan zen benetan Nafarroan. Irudiko aldizkari horretan Aingeruk argitaratu zuen Nafarroako hizkuntza-mapa, berak egindako ikerketen ondorioz.

Aingeru Irigarayk, bertzalde, ezagutzen ditu urte haietako kulturaren bultzatzaile eta eragile ospetsuenak. Horien artean, Arturo Campion, Azkue, Lacombe, Julio Urquijo eta bertze. Iruñeko etxean, berriz, astero-astero, solasean biltzen da jende frankorekin, bertze batzuen artean, Manezaundi eta Zaldubirekin. Aitak bezala, semeak ere, sentiberatasun handia zuen mugaz haraindiko euskaldunei buruz eta beti saiatu zen azpimarratzen Nafarroak Lapurdi eta Nafarroa Beherearekin zuen lotura hura, baita hizkuntzari doakionez ere.



EUSKO IKASKUNTZA, EUSKALTZAINDIA

Bi erakunde hauetan ere aritu zen. Eusko Ikaskuntzan (1918an eratutakoa) 1924an sartu zen eta hiru urte geroago Holandako Den Haag hirira joan zen Eusko Ikaskuntzaren izenean Julio Urquijo eta Lacomberekin batera, han egitekoa zen filologiaren gaineko biltzarrera. Eusko Ikaskuntzaren ospea eta itzala handi-handia zen gerra baino lehen eta 1933an batzorde iraunkorreko kide izendatu zuten Lizardik utzitako tokia betetzeko. Handik urtebetera, aldiz, idazkari ordezeko izendatu zuten. Harreman handi-handia izan zuen, noski, Eusko Ikaskuntzako kide eta laguntzaileekin, horien artean, Joxe Migel Barandiaranekin.

Aldi berean, urgazle egiten dute Euskaltzaindian, 1929an. Aita, Larreko, bere aldetik, hamar urte lehenagotik ari zen, bertzeak bertze, Nikolas Ormaetxearekin batera. Hortaz, ikus daitekeenez, aski lanpetua ibiliko zen Aingeru: lanbidea bera, bere zaletasunak, ikerketak, izkribuak, erakundeetako postuak eta familia, jakina. Horregatik, proposatu bazioten ere, ez zen Alemaniako Tübingeneko Unibertsitateko «Romanisches Seminar» mintegira irakurle gisa joan.

EUSKARAREN GALERA IZUGARRIA

Izan ere, afera batek tai gabe urratu zuen Nafarroako euskaltzale haien bihotzaren zola, hots, euskararen alimaleko galerak, hizkuntza gibelerat baitzihoan, zirriketan, maldan beheiti Nafarroako ibar eta herri aunitzetan. Ordurako lekutan zeuden Bonaparte Printzeak 1863an paraturiko mugak. Aingeru Irigarayk, Larrekok bezala, arrunt ongi bazekien hori, hau da, euskarak gero eta lurralde murriztagoa zuela Nafarroan, eta horrexegatik parte hartu zuen arestian aipatutako ekitaldi guztietan.

Garai horretan lotuko zaio hizkuntzaren geografiari buruzko lehendabiziko ikerlanak egin eta agiri



Aingeru eta emaztea, M.ª Rosa Imaz Aranguren andrea. Sortzez donostiarra bazen ere, ama nafarra zuen, Irunberrikoa. 1934an ezkondu ziren Lezon eta bizi, berri, Iruñean

Bonaparte printzeak bere mapa famatua 1863an argitara eman zuen. Bada, ez zen halakorik gehiago egin Aingeruk berea 1933an plazaratu artean, irudian dagoen horixe. 70 urtetan euskara arras hila zen Nafarroako ibar eta herri aunitzetan. Konparazio batera, Aingeruk ezagutu zuen ama Felisaren izeba urrotzar bat, gaztelera gaizki moldatzen zena, eta, pentsa, non dagoen Urrotz hori, Iruñea eta Agoitz artean, gari-herrian, alegia

zaharrak biltzeari. Alde batetik bertzera, ibarrez ibar, herriz herri ibiliko da datu jakingarriak biltzen, berriak jasotzen, eta, lan-ibilera horien emaitza izanen da euskararen egoeraz argitara eman zuen mapa; hau da, noraino iristen zen euskara 1933an eta herri bakoitzean euskarak zuen indarra edo ahuldadea, erran nahi baita, inkesta bat egin zuen ikusteko, adinaren arabera, nork zekien euskaraz mintzatzen eta nork erabiltzen zuen. Ikerlana Errepublikara garaian eginagatik ere, ez zuen oso-
-osorik karrikaratuko hogeitau urte iragan artean. Tartean, jakina, Francoren zoritxarreko altxamendua gertatu baitzen.



GERRA ETA ONDORIOAK

Aingeru Irigarayk bere emaztea izanen zena Donostian ezagutu zuen. Lanaren eta karguen karietarat, maiz joaten baitzen Gipuzkoako hiriburura. M.^a Rosa Imaz Arangurennek —hala baitzuen izena emazteak— aita Ordiziakoa eta ama Irunberrikoa zituen. Lezon ezkondu ziren, 1934an, eta Iruñea hautatu zuten bizitzeko. Esposatu eta bi urteren buruan Aingeruren bihotzean sekulan ongi orbanduko ez zen urradura gertatu zen, hots, gerra. Ikaragarrizko zartakoa izan zen, beldur-aroaren hasmenta, hil artean itzaliko ez zen oroitzapen hitsa. Orobat, berdin gertatu zitzairen euskal alorrean nabarmendu guztiei.



Uztailaren 18aren ondoko egun haietan, erreketek eta falangistek jende aunitz atzeman eta hil zuten Nafarroan. Aingeruk badaki bere izena zerrenda beltz haietako batean zegoela, eta, zirt-zart, ihesari eman eta Sarara iristen da Urdazubiko idazkari Salaberrik lagundurik. Orduan, Diputazioko presidenteak, Arraiza jaunak Larreko deitu eta manatu zion hobe zela Aingeru etxera itzultzea, bertzenaz harendako are kalte eta arrisku handiagoa izanen zela. Larrekori pasaporte berezia eman eta agindu zioten semearekin itzultzeko. Aingeruk ez zuen inola ere Iruñeratu nahi, baina azkenean berme eman zioten deus ez zitzaiola gertatuko eta kontuan hartuta familia Iruñean zegoela, bueltatu zen, Saran gelditzea makurrago gerta zitekeelakoan. Orduantxe hasiko ziren harendako zinezko urte latzak. Izan ere, ez zen giro odolak gainezka egin zuen Nafarroa hertsu hartan. Iruñeko Udalak Aingeru botatzen du bere mediku kargutik, arrazoi politikoak zirela medio. Mutua-etxeak, bere aldetik, hartua zuen Irigaray sendakina errekrimintzeko akordioa. Euskarari dagokionez, zer erranik ez, leize zolarat botatzen entseatzen dira. Aski da erratea frankistek herri batzuetako hilerrietako euskarazko idatziak kendu zituztela. Irigaraytarrek, zer gerta ere,

gisuz estaltzen dute Paulino Caballero karrikako etxeko atalarrian zegoen izkribua.

12




Honatx Iruñeko etxeko atalarria. Halaxe dio: «Irigarai baita. Edozein txoriri eder bere kafia». «Baita» hitza etxea izendatzeko erabiltzen da Bidasoa aldean eta «enea»-ren pareko da. Egun, Aingeruren seme Joxe Angelek gordeta du

EZIN KONTA AHALA ARTIKULU ETA IDAZLAN

Irigarayk gazterik heldu zion idazteari. Izkiriatzea ez baitzen arrotz etxe hartan, aitarengandik berarengandik hartu baitzuen zaletasun hura eta garaiko idazle gehienak ere ezagutu eta adiskide zituen, eta, argi dago zein idazmolde zitzaion laket, hots, lapurtar klasikoen moldea herri-euskararekin elkar hartuta. Bere lehendabiziko lana 1926koa da: Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkarian-RIEVEN idatzi zuen «Notas al nuevo mapa del Pais Vasco» izenburuko idazlana.


Hortik goiti, aunitz artikulua izkiriatu zituen hamaika aldizkari eta argitalpenetan, gerra aitzinetik eta ondotik, gai asko eta askoren gainean, sekulako jarioan. RIEVEN ematen ditu artikulua andana, tartean 1928an *El Quijote* liburua baten kapitulu baten itzulpena, urte hartan Iruñeko Udalak antolatutako sariketan aurkeztua eta saritua. Halaber, Ipar Euskal Herriko *Gure Herria*-n, *Yakintza*-n, *Eusko Folklore Urtekaria*-n, Iruñeko *La Voz de Navarra* egunkarian, eta inoizka ere, bertze zenbait argitalpenetan parte hartzen du. Gaien aldetik denetik dago: euskal idazleak eta hauek plazaratutako lanak, liburuen gaineko iruzkinak, literatur hizkera, euskal antzerkia, euskararen ortografia,

herri-kantak, euskararen gaineko agiri zaharrak eta hizkuntzaren lekukotasun historikoak, usadio eta ohitura zaharrak, folklorea, esaerak, onomastika-kontuak, politika-solasak eta bertze. Azken buruan, bizitza osoan gogoko izan zituen gaiak. 50 idazlan baino gehiago dira, gerra-hotsak zabaldu ziren arte han-hemenka argitara emanak. Gerrak, zarrast, errotik moztu zuen etorri handi hura eta isildu ziren euskal letrak, bortxaz eta beldurrez isilarazi, jakina. Hala ere, izan zen isiltasunean mintzatu zenik, hots, Larreko, *Gerla urte gezur urte* izkribu gogoangarri haren bitartez.



Gerra-aroak ezarritako muga, zigor eta beldurren gainetik, Aingeruren aitak, Larrekok, Iruñeko giro hertsiaeren lekukotasun hunkigarria utzi zuen isilpean idatzitako *Gerla urte gezur urte* liburu gogoangarrian. «...Debeku latza! Idatzi ez, mintzatu ez! Sarri, deiturak ere itzulikatu beharko...Hemendik aitzina inor ez da oroituko, hemen euskaldunik izan ote dan ere...»

Horratx bere lehen artikulua, RIEVen argitara emana. 1926. urtea zen hura. Hasmentako horri ezin konta ahala artikulua jarraiki zitzaizkion. Idatzi ahala haren itzala handituz joan zen euskaigintzan



Idazki horietan guztietan, sendakinak bere ikerketak eta lanak, bere aldekotasunak eta joerak, bere pentsamoldea eta literatur isuriak, bere arrangurak eta kezkak islatzen ditu. Hizkuntzari doakionean, argi dago Irigaray, nafar-egile euskaldunak bezala, Arturo Campionen jarraitzaile izan zela, Iruñeko maisu handiak Aranazaleekin izandako eztabaidagai guztietan: batetik, euskararen batasun bidean eta bertzetik, garbizalekeriari aurre egiterakoan. Nafarrek ez zuten batere maite Aranak proposatutako eta ezarritako eredia, tradizioarekin eta herri-hizkerekin deus ikustekorik ez zuelako eta, oro har, bertze eredu baten alde jokatzeko zuten, idazle klasikoaren eta herri euskara aintzat hartuko zuen aukeraren alde, bide emanek Nafarroako hizkerari, betiere.

Alde horretatik, honatx Luzaideko Enrike Zubiri, *Manezaundi* idazlearen erranetan Aingeru Irigarayk erabilitako moldeaz dioena: «garbia, ernea eta bakhuna, hain gisa goxokoa eta argia, nun mendiez bi aldetako eskualdunek ulertzen ahal dutena errexki, dremendenik neketasunik gabe» (Xabier Erize, 1997). Horra hitz horiei darien bertze ezaugarri bat, nafar-idazle aunitzengan topa daitekeena, «mendiz bi aldetako euskaldunak».



Gure Herria, mendiz haraindiko aldizkaria. Argazkiko alean Aingeruk «Euskaldun antzerkia» izenburuko artikulua eman zuen

Izan ere, hemengo egileek «mendiz haratako» eta Nafarroako euskal hizkeren loturak nabarmendu zituzten eta begi-bistakoa da hizkera horien guztien ekarria haien izkribuetan. Horretan, gehien nabarmendutakoen artean, Aingeru Irigaray dugu.

BERRITIK HASI BEHARRA

Gerrak zartako latza eman zion euskalgintzari alde guztietan, erreka zolarat bota zituen ordura arteko ahalegin eta mugimendu guztiak. Jende euskaltzalea barreiatu zegoen: hainbat hilik, aunitz zigorturik, denak mutuaraziak, gogoz abaildurik, indarrez ahul, bihotzez eri, arrunt trenputxarturik. Ez zen giro, jakina. Are gutxiago, Iruñea beltz hertsu hartan. Horregatik, Aingeru Bidasoa aldera lekutzen da, Hondarribira, zehazki, eta hango sendakin-lanpostua hartzen du. 1942 urtea da. Hurrengo urtean familia Gipuzkoan finkatzen da. Hortik goiti, lana zela medio, gero eta usuago Donostiara hurbiltzen da eta hara joanen dira denak bizitzera.

Urteak joan, urteak etorri, familian hiru heriotza gertatzen dira. Aita, Larreko, 1949an; emaztea, M.^a Rosa, berriz, 1952an —Aingeru lau seme-alabekin alargun gelditzen da—, eta, finean, ama Felisa Irigaray Apat, 1956an. Bertze gisa, urte haietan, 1952an eta 1953an, Iruñeko Udalak eta Diputazioak, hurrenez hurren, atzera bota zituzten 1937an lanetik kanporatuak izateko erabakiak. Hala ere, Iruñean lanean hasteko lanposturen bat libre gelditu behar zen eta hori ez zen gertatu 1962a arte. Hortaz, Donostian lanean, ondoren baita Iruñean ere, eta halaxe segituko du bi hiriburuen artean bi lanetatik jubilatzeraino.

15



Aingeru eta lau seme-alabak: Xabier, Juan Miguel, José Angel eta Maite

Gerra ondorengo urte haietan mugimendu euskaltzalearen sua arras itzalia baldin bazegoen ere, poliki-poliki, pindarrak hasi ziren. Kanpotik hila bai, baina barne-muinean hantxe zirauen euskaltzalearen sutegiak. Orduan, handik hauspotu, hemendik zirikatu, hortik hats eman eta su pizgarri hura zabaltzen hasi zen zoko-moko guztietara. Sukin garrantzitsuenetarikoa Aingeru Irigaray izan genuen, alor aunitzetan, gainera. Konparazio batera, Bizkaiko Diputazioko Kultur Sailaren aterpean, Azkuek Euskaltzaindia eratu zuenean, Nafarroaren izenean bi gizon egin zituzten euskaltzain oso: bata, Eladio Espartza, eta, bertzea Aingeru. 1941ean gertatu zen hura eta handik aurrera, Euskaltzaindiaren eginkizunetan, eginahalean, parte hartu zuen. Lumari heldu zion, berriz ere, hil artean esku artean erabili zuen tresna. Gerra ondorengo lehendabiziko artikulua Amigos del País elkarteko buletinean eman zuen 1945ean eta aldizkari horretan 50 idazlan baino gehiago idatzi zituen. Urte haietan karrikatu zuen, bertzalde, bere lehendabiziko liburua: *Primitiae linguae vasconum* Hugo Schuchardt hizkuntzalariaren izenburu bereko jatorrizko testuaren gaztelerazko bertsioa, Salamankan, 1947an.

KULTUR BIDEETAN INDARREAN

Kultur bideetan gero eta sartuago, 1953an Amigos del País elkarteko literatur aldizkarian ere hasiko da izkiriatzen, euskara hutsez, gainera. Aldizkari horren izena *Egan* da, eta hasmentatik beretik zuzendari da Arrue eta Mitxelenarekin batera. Aldian behin, artikulua plazaratzen ditu eta horietarik asko «Naas maas» izeneko sailean. Abantzu ehun idazlan. 50eko hamarkada honetan ere Principe de Viana erdal aldizkarian ere argitara ematen du. Aurrerantzeko gai guztizkoetariko bat hauxe izanen zen: izan dela euskaraz idatzitako literaturarik eliza-gaietatik kanpo. Ildo horretatik, hara zer idatzi zuen behin: «Profano delako sailean zenbait obra aipagarri badugu euskal literaturan, jendeak eta euskaltzaleek berek uste duten baino gehiago; erdal jakitunek behin baino gehiagotan esan dute literaturarik ez dugula, eta dugun apur hori eliza-gaiez mamitua izan dena. Hori ez da egia osoa... eta euskal jakitunek berek merezi duten baino literatura gehiago dugula esango ginuke; dugun apurra ezagun ez delako, irakurtzen ez delako, eta irakurtzen delarik preziatzen ez delako! Hau da egia».



Horra *Egan* aldizkaria eta barneko «Naas maas» atala. Aingeru 1950ean hasi zen idazten aldizkari honetan eta eten gabe segitu zuen 1981 urtera artean. Garai hartan hasi zen Apat-Etxebarne izengoitia erabiltzen, amaren aldeko deiturak zirenak

Nafarroako *Príncipe de Viana* erdal aldizkariari inoiz ere idatzi zuen. Alde horretatik, azpimarratu behar da 1965ean, aldizkari honetan argitara eman zuen lan mardula, hots, «Esbozo bio-bibliográfico de literatura eúscara profana» nabarmentzeko elizatik kanpo euskal literatura ere izan dela



17



Euskaltzaindiaren bilera batean, 1963ko urriaren 25ean, Bilbon. Aingerurekin batera, bertzeak bertze, Villasante, Bordari, Zavala, Alfontso Irigoien, Antonio Arrue, San Martin, Aresti eta Lekuona zaharra

Halaber, Gipuzkoako Julio de Urquijo Mintegian kide izendatzen dute 1954an, eta, gogatsu parte hartzen du literaturaz eta kulturaz jantzitako giro horretan. Mintegi hura ikerlari, hizkuntzalari eta historialarien topaleku bihurtzen da: Lacarra, Holmer, Bouda, Mitxelena, euskaltzainak eta bertze.

Hiru urte geroago, aldiz, Iruñetik hots egin zioten, eskuhar zezan Nafarroako Diputazioko Principe de Viana kultur erakundeak eratutako Euskeraren aldeko Sailean. Sail hura eratu zuten gainetik beheiti zetorren hizkuntzaren izen ona goratu nahian. Garai hartan Iruñeko gizon ospetsu euskaltzale bat zen diputatu, Miguel Javier Urmeneta, alegia, eta, haren aterpean lan gaitza egin zuten sail hartan bildutakoek. Sendakin bat zen arduraduna, hots, Pedro Diez de Ultzurrun Etxarte iruinxemea eta elkarrekin, kolaboratzaile andanarekin batera, hamaika ekitaldi antolatu zituzten: euskal jaiak, haur-azterketak, sariketak, bertsolari-txapelketak eta bertze. Era berean, euskarazko aldizkari bat plazaratuko dute, *Principe de Viana* izenburukoa, eta, Iruñeko *Diario de Navarra* egunkarian «Nafar Izkuntzan orria» sortuko dute. 1977a artean, Diez de Ultzurrunek eraman zuen orri horren ardura eta

hortik aitzinera, berriz, Aingeru Irigarayk, eritasunak lan horretan segitzea galarazi artean. Orobat, garai hartan bertze bi aldizkari atera zituen Diputazioak, *Fontes de Linguae Vasconum* eta *Cuadernos de Etnología y Etnografía*, Jose Mari Satrustegiren zuzendaritzapean. Bada, argitalpen horietan guztietan ere oparo izkiribatu zuen, baita *Euskera* delakoan ere, edota harremana izan zuen Miranderen eta Peillenen *Igela* aldizkariarekin eta noiz edo noiz *El Bidasoa* aldizkariarekin ere bai.



Aingeru Irigaray Iruñeko Pedro Diez de Ultzurrun sendakin euskaltzalearekin Leitzan, Orixeri egindako omenaldian, 1957an



Principe de Viana euskal aldizkaria. 1966tik aitzinera urte haietan euskalgintzan zihardutenen topaleku. Aingeru ere hantxe aritu zen 1973an aldizkariari hegalkak moztu artean. Urte horretatik aurrera, aldizkariko jabe berriek argitalpena erreka-zolarat bota zuten




Diario de Navarra egunkariaren euskal orria, orri garrantzitsua garai hartan. Gero, lehenbizi Diez de Ultzurrunek eta ondoren Aingeruk utzi ondoren, arduradun berriek bertze bide bat hartu eta orria goitik behera hondatu zuten

LAN BALIOSAK

Begi-bistakoa denez, zahartzaroaren atarian, lan aunitz eta plantakoak zerabilzkien esku artean. Arrunt ezaguna zen, bertalde, ospe handiko gizona, euskaltzale hauta, eta, geldi gabe bere gustuko lanari lotzen zitzaion, hots, ikerkuntzari eta idazteari. Astia topatzen zuen artxibategietara, maizko, jotzeko. Ez ziren gutxi izan gero, Nafarroako Artxibo Nagusian aurkitutako agiri zaharrak, euskararen berri ematen zutenak, bere adiskide Florentzio Idoatek, hots, Artxiboko zuzendariak lagundurik. Gehien gustatzen zitzaion kontua zen hura, hau da, paper zaharretan arakatu, euskarari buruzko lekukotasun historikoak topatu eta argitara emateko. Arrazoi berbera zela medio, Iruñeko Elizbarrutiko Artxibategira ere hasi zen joaten. Balio handiko izkribuak aurkitu zituen, bere idazlanetan, harat-honat, isuri zituenak.


Agiri, testigantza eta paper horiek guztiek salatzen zuten agerikoa zena, hots, euskarak lurralde zabal-zabalak eduki zituela garai batean, denboraren zorigaitzoko joanean, arras galduak. Lekukotasun horien guztien bilduma ederra egin zuen 1974an argitara emandako *Una geografía diacrónica del euskera en Navarra* delako liburu



Urte luzeetako ikerketa lanen emaitza irudian agertzen den liburuan eman zuen: euskararen lekukotasunak mendeetan barrena



Liburu honetan Aingeruk Enrique Zubiri, Manezaundi luzaidarraren eta Larrekoren artikulak, kronikak eta kontakizunak bildu zituen




Iragan mendeetako euskarazko testuak; gure historiako agiriak eta gertaerak; jostetak, ele zaharrak eta mitologia. Horra hor liburu horren edukia

mamitsuan. Ildo beretik, hiru urte lehenago argia ikusia zuen *Noticias y viejos textos de la «lingua navarrorum»* izenekoak.

Halaber, 69an, euskara ikasteko ikasbide bat argitara eman zuen, lehenengo eta bigarren mailako ikasleei zuzendua: *Jostatuz mintzaira ikas*. Bertze liburu bat *Poesías populares de los vascos* izan zen. Orobat, liburu zinez baliagarria *Prosistas navarros contemporáneos en lengua vasca. xx-garren mendeko Nafarroako euskal idazlariak*, 1958an, Nafarroako Diputazioko Principe de Viana erakundeko Euskeraren aldeko Sailak argitara emana. Azkenik, Itxaropena etxeak *Euskalerriko ipuiñak* izenburuko liburua plazaratu zion, Kuliska sortaren barruan, 1957an.

Francisque Michel
ezagunak 1857an
idatzitako *Poésies
populaires des
basques*
argitalpenaren
itzulpen
aberastua eta
ohar nahiz
ekarpen
aunitzez
hornitua



Lafitte lapurtarrarekin Auritzen, 1972ko irailaren 10ean, Euskaltzaindiak Larrekori egindako omenaldian

AZKEN URTEETAN ERE JORI

Urteen zamak aitzinera eginagatik ere, Iruñeko sendakina indarrean zebilen, buru emanez hainbertze eta hainbertze eginkizuni. Konparazio batera, Sánchez Carrión, *Txepetx* soziolinguista ospetsuarekin batera eta Julio Caro Barojaren laguntzarekin, saiatu zen Diputazioa konbentzitzen euskararen aldeko zinezko plana egin zezan. Diputazioak baietz erran zuen. Aingeruk eta Txepetxek eskoletan erabiltzeko liburu berezi bat prestatu zuten, baina Nafarroako Erakunde nagusiak ez zuen bere lana egin. Liburua eginda dago, baina oraindik ez du argia ikusi. Ordurako, 70eko hamarkada hartako hirugarren urterako, Diputazio barneko euskararen gaineko sentiberatasuna aldatua zen, arruntean, gainera, hizkuntzaren kalterako, jakina.

Artikuluak eta idazlanak etorri handian, harat-honat, argitara emateari inola ere utzi gabe, Euskaltzaindiak zekarzkion lanekin eta ardurekin batera, Aingeruk gogo biziz parte hartu zuen bertze euskal erakunde baten berreraketan, Eusko Ikaskuntzan, alegia. Hantxe aritu zen J.M. Barandiaranekin eta berpizte haren eragile nagusiarekin, hau da, Agustin Zumalaberekin. Gerra aitzineko batzordeko kide izan zenez, oraingo

aldi eraberritu honetan batzordekide iraunkorra izan zen, biziartekoa, 1977tik goiti. Aingeruk gogoan gorderik zeukan Eusko Ikaskuntzak 1936a baino lehen izan zuen ospea eta itzala, eta, beharrezkotzat jotzen zuen molde horretako erakunde baten zeregina euskal kulturari zerion usain eta joera hertsi horiek gainditzeko.

Muturreko jarrerak sumatzen zituen, konparazio batera, euskararen batasunaren aferaren gainean. Gaztarotik erakutsia zuen horri buruzko

kezka. Batasun bidean aitzina jotzearen aldekoa zen, baina azken urte horietan nagusitu eta gehien erabiltzen ari ziren manerez eta moldeez hagitz arranguraturik zebilen, bolada luze hartan herriko hizkerak, mintzaira biziak, azken finean, hizkuntzaren bizitasuna bazter gelditzen ari zelako. Aingeruk zentzuzko bidea proposatu zuen, bide zabala, «erdiko bide bat», pixkana-pixkana aurrera egitea, dogmatismoetatik ihesi, bizitzaren gainontzeko alorretan bezala. Ez zebilen eroso giro teinkatu hartan.



Eusko Ikaskuntzaren berpiztaldian gogoz eta bihotzez aritu zen Aingeru. Oñatin, 1978ko irailaren 24an, hartutako argazki horretan, bertze batzuen artean, Barandiaran eta Villasante ageri dira Aingeruren inguruan

Horratx Aingeruren bi azkeneko lanak, *Fontes Linguae Vasconum* aldizkari ospetsuan argitara emanak, 1982an. Azkenera arte bere guztizko gaiak erabili zituen: «Euskara Galipentzu aldean» (xvii mendean) eta «Nafarroako Ospitale Zibila eta euskera xvii mendean»



HONDARREKO


Aingeru Irigaray Irigaray 1983ko azaroaren 28an hil zen Donostian, 84 urtetan. Zendu eta berehala Iruñera eramán zuten eta Nafarroako hiriburuko kanposantuan datza ehortzia. Haren lanari eta eraginari buruz erran eta idatzi direnen artean, Koldo Mitxelena ondoko hau adierazi zuen, «asko zor diot Aingeru Irigarai adiskide zenari. Hobeki esan, gure garaitsuko jendeak du zorra. Bera izan zen, izan, hainbat joera eta zaletasun kutsatu eta txertatu zizkiguna euskal arloan. Emaitz horien artean aurki daitezke, besteak beste, euskal literatura zaharrari nahiz ahozkoari opa behar diogun jakin-nahia; naturaltasunak hizkuntza gaietan duen esku nagusiari dagokion begiramen apala; hango eta hemengo testuek merezi duten arreta; eguzki eta iparraldeko euskararen eskakizunek behartzen duten ixuria eta ezaguera...».

Euskal filologiako doktore Xabier Erizeren irudikoz, Aingeru, 1936ra arteko garaian gaztea bazen ere, euskararen kontuei dagokienez, oso heldua zen eta oso eraginkorra, arras gogoeta interesgarriak egiten baitzituen: euskararen batasuna, euskara herritarraren eta klasikoen tokia euskara batuan, mugimendu

euskaltzalearen arazoak... Lotura zuzena izan zuen Campionekin, eta, Erizeren aburuz, Aingeru izan zen Iruñeko maisu handiari segida hobekien eman ziona eta gerra ondoko euskaltzaleekin zubiarena egin zuena.

Finean, Jose Maria Sánchez Carriónek halaxe idatzi zuen 1984ko urtarrilean, *Navarra Hoy* egunkarian:

...Aingeruren lana ez daiteke konprenitu ez baldin bada ulertzen hizkuntzarenganako hurbilketaren dimentsio bikoitz hori: hizkuntzaren iraganean ikertu, aztertu, eta euskarari etorkizuna prestatu... Amaigabeko eskakeriez betetako mende honetan, Aingeru Irigaray nafar buru-argi bakanetako bat da, Nafarroako euskararentzat etorkizun bat pentsatu eta taxutu zuena eta euskararentzat etorkizun hori topatzen saiatu zena.



Horra beraz, Aingeru Irigaray Irigaray sendakinaren lana, arrunt barreiaturik dagoena, ez baita bildumarik egin. Bere artikulu batzuk bildurik daude Jose M.^a Larreak Iruñeko Pamiela etxean argitara emandako *Nafarroako euskal idazleak //* liburuan. Arestian erran bezala, Iruñeko hilerrian datza, Aingeruk berak Larrekorekin batera eginarazi zuen familiaren hilobian. Bego, bada, betiko atsedenean, bere Iruñea maitatuan lur emanik, Aingeru Irigaray Irigaray jaun sendakin euskalduna. Etxekoak leial zaizkio gertatu. Honatx, seme Joxe Angelek aitaren heriotzaren karietarat, barne-barnetik isuritakoa:

Tristura handi bat
daukat bihotzaren barnean,
ahalge naizelakotz
ez nezaioke nehorri erran,
ama lurrari diot kontatuko
betirako muxuz azken atsedean.



Iruñeko hilobia. Hortxe dautza Larreko eta Apat-Etxebarne. Hauxe dio: «Au da Irigaraitarren il-obia, Yainkoa baitan beude. 1934. urtean. Oroit iltzeaz zuhur baduzu»

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Aingeru Irigarayren senitartekoak*
- *José Luis Villar argazkilaria*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 1999ko azaroa

Ale-kopurua: 2.000

© Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 -01010 Vitoria-Gasteiz

Fotokonposizioa: Ipar, S. Coop.
Particular de Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimaketa: RGM, S.A.
Padre Larramendi, 4 - 48012 Bilbao

ISBN: 84-457-1440-6 (Obra osoa)
84-457-1444-9

L.G.: BI - 2.678-99

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística